2022ko ekainean erregistratutako langabezia

2022ko ekainean zehar LANBIDEko bulegoetan % 1,51 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 111.642 da, aurreko hilean baino 1.710 gutxiago. Ekaineko datuak positiboak izan ohi dira; hil honetako datuek joera hau baieztatu arren, langabeziaren beherakada ohi baino txikiagoa izan da.



	eka.-08	eka.-09	eka.-10	eka.-11	eka.-12	eka.-13	eka.-14	eka.-15	eka.-16	eka.-17	eka.-18	eka.-19	eka.-20	eka.-21	eka.-22
Saldoa	-1.010	-2.646	-3.283	-3.933	-2.828	-4.205	-7.103	-4.602	-3.588	-2.967	-2.316	-2.530	2.733	-259	-1710

Aurreko urteko ekainarekin alderatuz, 10.717 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren hazkunde azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, bai gizonezko zein emakumezkoen artean murriztu da langabezia; baina murrizketa hau askoz apalagoa da emakumeen artean (-1.599 eta -111, hurrenez hurren). Urte arteko saldoari dagokionez ere, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-5.575) emakumezkoen arten baino (-5.142). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko ekainarekin alderatuz, 437 gizonezko gehiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 138 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 57,7 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da, 16-24 urte artekoen artean izan ezik; % 0,33 hazi da tarte horretan. Beherakada handiena 25-34 urte artean erregistratu da (-% 2,63); 35-44 adin tarteak jarraitu dio (-% 2,20). Urte arteko bilakaeran, korrelazio ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean: nabarmentzekoak dira 25-34 urte arteko (-% 13,73) eta 35-44 urte arteko (- % 13,94) murrizketak. 54 urtetik gorakoen tartean hazi da soilik langabezia; % 0,53, hain zuzen ere.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Ekainean, langabezia sektore guztietan murriztu da. Gehien, industrian murriztu da (-% 3,74) eta gutxien zerbitzuetan (-1,30%). Lan-esperientziarik ez dutenen artean % 0,42 murriztu da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da industrian (-% 13,58), eta eraikuntzan (% -10,88) egon den beherakada nabarmena. Lehen sektorean % 8,94 eta zerbitzuetan % 7,62 murriztu da. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 9,38 murriztu da azken urtean.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

47 Txikizkako merkataritza ..... -339

87 Egoitza-establezimenduetako laguntza..... -243

78 Enpleguarekin loturiko jarduerak..... -230

86 Osasun jarduerak..... -171

81 Eraikuntza eta lorategietako jarduerei zerbitzuak .... -146

46 Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak..... -101

Aitzitik, ekainean erregistratutako langabeziaren hazkunde handiena izan duen jarduera honakoa izan da:

85 Hezkuntza..... ..... +84

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 1.264 pertsonatan murriztu da (-% 2,19) eta epe laburrekoa, ere, murriztu egin da (446 pertsona gutxiago, -% 0,80). Urte osoari begiratuz gero, epe luzeko langabeen artean murrizketa eman da (-% 16,12); epe laburrekoen kasuan, aldiz, hazi egin da (% 0,23). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia nabarmen igotzea eragin zuen; gaur egun, zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 56.431 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 50,5a.

2022ko ekainean erregistratutako langabezia

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena 30urtetik beherakoek izan dute.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Ekaineko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 0,37 murriztu da, maiatzean baino 72 langabe gutxiago, 19.325 langabe guztira. Gipuzkoan % 2,77 murriztu da, 834 pertsona gutxiago daude langabezian maiatzarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 29.328koa da) hil honetan bilakaera hoberena erregistratu duen lurraldea izan da. Azkenik, Bizkaian, martxoan baino 804 langabe gutxiago daude (% 1,26ko murrizketa), langabetu kopurua 62.989 da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 9,75eko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 9,15eko murrizketarekin eta azkenik Araban % 4,72 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean langabezia 343 pertsonatan murriztu da (-% 1,56), Vitoria-Gasteizen 135 pertsonatan murriztu da (-% 0,90) eta Donostian 250 pertsonatan murriztu da (-% 3,36). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezkerraldea (-227), Urola Kosta (-131) eta Bidasoa Behea (-127) izan dira. Bestalde Ibaizabal (+4), Arabako Bailarak (+4) eta Gorbea bailaran (+4) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,84), Oion (% 17,84), Sestao (% 16,57), Lanestosa (% 16,36), eta Balmaseda (% 15,93).

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2022ko ekainean 36.559 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 774 langabe gutxiagok. Langabeen % 32,7k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 19.740 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 17,7 dira horiek. 16.819 langabek (% 15,1), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,5), Bizkaian % 31,7koa da eta Araban % 31,9koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,19 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz, aldiz, hazi egin da, 0,35 puntu hain zuzen ere.

Ekainean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua jaitsi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua, ere, murriztu egin da.

• JATORRIA

Langabeen % 16,3 (18.166 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia gutxiago murriztu da atzerritarren artean (-% 3,12) bertakoen artean baino (-% 1,19). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 6,45 murriztu da, eta bertakoen artean % 9,19.

Langabe atzerritarren % 34,8 Afrika iparraldekoak dira, % 21,9 Latinoamerikatik datoz, % 18,4 Europako Esparru Ekonomikotik, % 12,9 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,1 azkenik, Asiatik. Ekainean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-259); gutxien, berriz, Europako Esparru Ekonomikotik etorritakoen artean (-29).

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 60,3k (67.325 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.475 langabetu gutxiago erregistratu dira; % 2,14 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 8,66 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,9 dira. Talde horretan % 1,06 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 8,78.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.552 dira, hau da, langabeen % 18,4. Talde hau ekainean zehar % 2,67 murriztu da, eta azken urtean % 8,46.

Azkenik, langabeen % 12,4k (13.814 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 3,25 hazi da langabezia azken hilabetean eta, % 9,64 murriztu da azken urtean.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 42.409 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 1,45eko beherakada). Guztira 2.880.582 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,51 jaitsi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 2,22 murriztu da, Errioxan % 0,49 murriztu, Kantabrian % 3,74 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 3,85 murriztu. Katalunian % 2,86 murriztu da eta Madrilen ere murriztu egin da; % 2,36 hain zuzen ere.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko ekainean

	Mai-2022	Api-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	47.271	48.870	-1.599	-3,27
EMAKUMEZKOAK	64.371	64.482	-111	-0,17
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	17.282	17.588	-306	-1,74
GIZONEZKOAK	8.241	8.618	-377	-4,37
EMAKUMEZKOAK	9.041	8.970	71	0,79
25-44 URTE:				
GUZTIRA	33.666	34.361	-695	-2,02
GIZONEZKOAK	12.947	13.563	-616	-4,54
EMAKUMEZKOAK	20.719	20.798	-79	-0,38
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.694	61.403	-709	-1,15
GIZONEZKOAK	26.083	26.689	-606	-2,27
EMAKUMEZKOAK	34.611	34.714	-103	-0,30
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.323	2.379	-56	-2,35
INDUSTRIA	11.908	12.371	-463	-3,74
ERAIKUNTZA	7.150	7.278	-128	-1,76
ZERBITZUAK	75.903	76.906	-1.003	-1,30
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.358	14.418	-60	-0,42
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.325	19.397	-72	-0,37
BIZKAIA	62.989	63.793	-804	-1,26
GIPUZKOA	29.328	30.162	-834	-2,77
EAE	**111.642**	**113.352**	**-1.710**	**-1,51**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.740	10,0%	-127	-3,28	-423	-10,16
Oarsoaldea	3.445	9,4%	-70	-1,99	-393	-10,24
Donostia-S.Seb.	7.180	8,1%	-250	-3,36	-850	-10,59
Donost.Mendebaldea	2.953	7,8%	-48	-1,60	-287	-8,86
Tolosaldea	1.881	7,9%	-33	-1,72	-175	-8,51
Urola Erdia	1.167	7,5%	-4	-0,34	-87	-6,94
Goiherri	1.615	7,5%	-21	-1,28	-94	-5,50
Deba Garaia	2.287	7,6%	-40	-1,72	-135	-5,57
Deba Behera	2.581	9,8%	-70	-2,64	-209	-7,49
Urola Garaia	1.047	8,5%	-40	-3,68	-112	-9,66
Urola Kosta	1.432	6,3%	-131	-8,38	-190	-11,71
GIPUZKOA	29.328	8,3%	-834	-2,77	-2.955	-9,15
Vitoria-Gasteiz	14.910	11,8%	-135	-0,90	-837	-5,32
Aialako Ibarra	2.176	11,7%	-31	-1,40	-219	-9,14
Arabar Errioxa	624	11,6%	53	9,28	-51	-7,56
Arabako lautada	674	8,9%	-38	-5,34	-48	-6,65
Gorbeia inguruak	318	6,8%	4	1,27	-3	-0,93
Arabako Ibarrak	416	8,1%	4	0,97	13	3,23
Arabako Mendialdea	97	6,2%	3	3,19	-10	-9,35
ARABA	19.325	11,6%	-72	-0,37	-958	-4,72
Gobela	4.439	8,8%	-58	-1,29	-581	-11,57
Txorierri	2.062	9,0%	-11	-0,53	-321	-13,47
Uribealdea	2.842	8,6%	-54	-1,86	-338	-10,63
Durangaldea	3.175	8,6%	-90	-2,76	-415	-11,56
Busturialdea	2.068	9,6%	-12	-0,58	-220	-9,62
Lea-Artibai	892	7,4%	-32	-3,46	-160	-15,21
Enkarterriak	2.044	13,4%	55	2,77	-99	-4,62
Arratia-Zornotza	1.415	8,1%	-17	-1,19	-178	-11,17
Arratia-Nerbioi	1.310	10,2%	-16	-1,21	-100	-7,09
Bilbo	21.711	12,9%	-343	-1,56	-2.178	-9,12
Ezkerraldea	16.481	13,3%	-227	-1,36	-1.791	-9,80
Ibaizabal	4.468	11,1%	4	0,09	-399	-8,20
BIZKAIA	62.989	11,3%	-804	-1,26	-6.804	-9,75
EAE	**111.642**	**10,4%**	**-1.710**	**-1,51**	**-10.717**	**-8,76**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.